

# Limako Agiria

## Erorien Arana eta Francoren hilobiari buruz

*LOS MUERTOS DE EUZKADI RECLAMAN:*



**Limako Arantzazuko Andre Mariaren Ermandadeak**, 1612an Euskal Nazioko kideek sortua, **Limako Arantzazu Euzko Etxearekin batera**, 2018. urtean, iraganean Espainiar Estatuan erregimen ilegal eta kriminala inposatu zutenen matxinatuei zuzendutako omenaldi monumentua izateari buruzko duten iritzia publikoki adierazi nahi du. Hare gehiago, monumentu honek, merezi ez duen ohoreekin, euskaldunei eta espainiarrei hainbeste miseria eta min eragin zien erregimen horren liderraren, diktadorearen gorpuzkia gordetzen du.

**EZ kolpistei zuzendutako moumentuari.** Erorien Arana, erregimen totalitario hark «gurutzada aintzatsu» bezala izendatzen zutenean borrokan hil zirenei ohorea egiteko eta lurperatzeko helburuarekin sortu zuen. Leku hori gaur egun ere zutik egoteak, demokrazia; kolpistei aurre egin zien Errepublikaren babesleei; hau eraikitzaera derrigortuak izan ziren esklabuei, eta ia 40 urtez beldurragatik mantendu zen gobernu ilegalaren atzaparkadak sufritu zituzten euskaldun eta espainiarrei iraintzea da.

**EZ “Estatu hilobia” kolpista batentzat.** 2018an, kolpistek hildako hamar milaka pertsona zulo anonimoetan lurperatuak jarraitzen dute; ehun milaka pertsonak ez dute erreperatu era ilegalean, auzitegi ilegal batek eta bidegabeko legeak aplikatuz eskuetatik kendutako ondasunak; eta, azken finean, frankista gaizkileak hauen ardura politika eta legalei aurre egitea ekiditzea erreztu zien konstituzioaren kontrako eta duineza den Amnistia Lege batengatik, ez dira frankiismo garaiko bidegabekeriak zuzendu.

Bitartean, guzti honen arduraduna, jeneral izandako Francisco Franco, Espainiar Erreinuaren Estatukoa den onibarrean lurperatua jarraitzen du, “Estatuko buruzagi” tratuarekin, jarraitzaile faxiztengatik ohoreak eta omenaldiak jasoz.

**EZ gure gudarien bahiketari.** “Demokrata” bezala adierazten diren espainiar gobernuaren laido eta lotsarako, milala errepublikar soldaduen gorpuak, hauen artean gudariak ere badaude, leku duinez honetan daude lurperatuak, frankista Erregimenak bahituak.

### Guzti honengatik zera eskatzen dugu:

- Jeneral izandako gorpua, merezi ez duen ohorezko leku honetatik ateratzea eta familiari emana izatea.
- Monumentu frankista honetan era ilegalean lurperatutako gorpuak ateratzea eta familiei ematea, eta azken hau egitea posible ez den kasuetan, matxinatuak, estatu demokratiko bat babesleei aurre egin zien gerra bat egon zela gogoraraziko duen monumento batetan lurperatuak izatea.
- Monumentu honen suntsiketa, edo, gerra bat eta diktadura garaia eragin zuen kolpe militarra egon zen azalduko duen zentru batean eraldatzea. Honetan, matxinadaren arduradunak identifikatuko litezke eta hauen eta beraien gobernu ilegalaren ekintzek eragindako zorigaitzak ere azalduko litezke.

Euskal instituzioek honen gain hartuko dituzten neurri guztiak babestuko ditugu, eta munduan zehar dauden euskal zentru guztiei, aldarrikapen hauek bereak egitea eskatzen dugu.

Euskaletxe guztiek frankismotik ihes egin behar izan zuten erbesteratuak hartu zituzten eta munduko euskal familia askok izugarria izandako erregimen horrengatik hildako lagun maitea dute. Bai Francok eta frankismoak epaituak izatea merezi dute, hauen biktimek merezitako egia, justizia eta ordaina izan dezaten.

Liman, 2018ko urriak 12an